



Herri Aldizkaria OTAMOTZ

□ 100 lagun inguru bildu dira **ZINTZO MINTZO**k antolatutako **Gure euskara hobetuz** izeneko euskara ikastaroan. **Patxi Goenaga** euskaltzaina eta Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia katedraduna izan da irakaslea eta martxoko lau ostegunetan izen sintagma, aditza, aditzondoak, lokailuak eta perpaus elkartuen inguruko zenbait gorabehera azaldu eta argitzen saiatu da. Batez ere irakasleentzat zuzenduriko ikastaroa izanik, bi herrietako ikastetxe desberdinetako irakasleek gain Legazpiko zenbait eskolatako maisu maistrak ere, Urretxuko Garaialde Lizeora inguratu dira beraien euskara hobetzeko asmoz.



□ Hilaren 15ean Urola Garaiko Man-komunitateak, 1996. urterako aurrekontua onartu zuen. Era berean, datorren ikasturtetik aurrera, **Urola Garaiko Lanbide Eskola**, egungo San Jose ikastetxean kokatuko denez, ikastetxe hau 200 milioi pezetaren truke erostea gehiengoz onartu zen. HBko zinegotziek, Lanbide Eskola sortzearen alde azaldu baziren ere, honen eraketaren aurka bozkatu zuten eskola berriak lehenengo urteetan, *A motako* hizkuntz eredua bakarrik eskainiko duelako. HBren ustetan irakaskuntzan D eredua ezinbestekoa da.

□ **Juan Maria Urdangarin** zumarragarra Vital Kutxako lehendakari berria izango da martxoaren 30etik aurrera, EAJk egindako proposamena onartu eta gero. Sei urtetan Vital Kutxako kontrol batzordeko lehendakaria izan da eta 1989. urteaz geroztik kargua bere esku izan duen Francisco Allende ordezkatu du.



□ **Josi Etxeberria** intsumi-soa, Martuteneko kartzelan espetxeratua egon da martxoaren 6tik 22ra bitartean. Urtebeteko kar-

tzela zigorra hirugarren graduan bete beharko duenez, gaua Martutenen pasatu beharko du. Asteburuetan, astelehenetik ostirala bitartean, etxeratzeko baimena izango du hala ere, inoiz OTAMOTZ aldizkarian kolabortzaile moduan aritu den zumarragarra.

□ Zumarragako **Hits & Fits** bandak, Joxean Artzerekin batera, olerki errezitaldia eskaini zuen **Miarritzeko kultur astean** hilaren 21ean. Errezitaldia ikusentzunezkoa da eta herritarrek poemak irakurri, kantatu eta mimoa egiten dute. Aurretik, Donostian, Aretxabaletan, Usurbilen eta Durangon eskaini dute **Hits & Fitsekoek** lan hori.

DEIALIZABOEN

Zintzo Mintzo
ELIARTEA

TEKNOLOGIARIK BERRIENA ZURE ESKU

HEG ALDE AUTO

• KONPONKETAK OROKORREAN
• IBILGAILU SALMENTA
• GARBIKETA ZUBIA

ZERBITZU OFIZIALA

PEUGEOT

Mugitegi, 17 © 72 51 37 - URRETXU

BIONA

AROTEGIA

© eta Faxe: 72 02 55
Erratzu, z/g 20700 URRETXU

LIBURUENDA

GANBARA

Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45
20700 URRETXU

URRETXU-ZUMARRAGAKO BERTSO ESKOLA IPARRAGIRRE BERRI BATEN BILA

Gorka Azkarate eta Gorka Ojanguren 18 urteko bi urretxuar hauekin gure herriotako bertso eskolari buruz aritu ginen solasean. Azkarate Bilbon ari da ingeneritza ikasten eta Ojanguren, aldiz, Donostian zuzenbide ikasketak burutzen. Bi hauek dira bertso eskolan urte gehien daramatzaten ikasleak.

Elkarrizketa hasi aurretik bi gazte hauek Juanjo Sagastibeltza eta Iñaki Beitiaren lana goraipatu nahi izan dute beraiek izan baitira proiektu honen gidari eta protagonistak

Nola hasi zineten eta zergatik?

Ikastolan geundela, bederatzi urterekin, hasi ginen hamar lagun inguru, gehienbat pasatzen genituen momentu atseginengatik eta sarritan egiten genituen meriendak zirela eta.

Bederatzi urte hauetan nolako izan da bilakaera?

Hasieran taldeka prestatzen ginen taldekako txapelketan parte hartzeko baina denbora aurrera joan ahala lan hori utzi eta bakarkakoari ekin genion. Dena den, nahiago dugu bertso afarietan aritzea giroa jatorragoa delako eta lasaia aritzen garelako.

Bertso afariak aipatu dituzuela, eskualdeko bertso eskolek proiektu berri bat sortu dutela entzun dugu. Esplika iezaguzue piska bat zertan datzan.

10 bertso

afari antolatu dituzte, gazteok jende aurrean kantatzen ohitu gaituzte, jende aurrean hanka sartuz ikasten baita gehien.

Ze iritzi duzue Urretxu-Zumarragako plazari buruz?

Ez dago zaletasun handirik, baina hau nahiko normalizat jo daiteke gure herriotan euskarak duen maila ikusirik.

Zein da hemengo bertso taldearen antolamendua?

Normalean larunbatetan biltzen gara, kanpoan ikasten duen jendea taldean egonik, hori delako egunik aproposena. Gure adineko 5 lagun biltzen gara eta gutaz gain oraintsu beste hamarren bat gaztetxo inguratu dira.



Neskarik?

Bai, Nerea Elustondo legazpiarra dago, nahiko maila ona du gainera. Aurten Gipuzkoako txapelduna izan da, legazpiarra izateko ez dago batere gaizki.

Eta ezin amaituko dugu bertsozik eskatu gabe...

*Jolas bezela hasi genduna
afizio azkenean
beti aldarte atseginean
eta umore onean
Aurrerantzean segiko degu
orain arteko lanean
euskal giroak gure herrian
irauten duen artean.*



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • ☎ 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA



belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga, 31
URRETXU

Tfnoa: 72 27 80

EDURNE

Punta puntako moda

Aukerarik hoberena
gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 ☎ 72 14 17 ZUMARRAGA



RENEO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700
URRETXU

☎ 72 56 82
72 22 92



Lanbete

- estetika
- dietetika

Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA

ITURGINTZA



LUIS ANGEL

Gure erakusketan zain
gauzkazu!

Deskargarako bidea, z/g. ☎ eta Faxes: 72 54 59

Trenbideak sortutako liskarrak eta abantailak

RENFEko tren zerbitzua gure bi herriotako egungo garraio bide publiko erabiliena bada ere, trenbideren eraikuntzak, ordurarte horrenbestekoak ez ziren urretxuar eta zumarragarren arteko liskarrak piztu zituen.

Sociedad General del Crédito Mobiliario enpresa arduratu zen Irun-Madrid norabideko trenbidea egin eta tren zerbitzua martxan jartzeaz. 1860-1870. hamarkadan eraiki zuen enpresa honek Zumarragako trenbidea.

Trenaren ibilbidea zuzena izan zedin, betidanik bi herrien arteko muga izan den Urola ibaiaren norabidea aldatu behar izan zen, oraingo Galeperrako aparkaleku inguruan, garai hartan, Zelaikoa izenez ezagutzen zen tokian. Ibaiaren norabidearen aldaketarekin, Urretxuk lur zati bat galdu zuen eta ordurarte Urretxukoa izan zen Zelaikoa etxea mugaz beste aldera geratu zen. Bertako bizilagunek, distantziaz Zumarragako udaletxea Urretxukoa baino gertuago zutenez, administratiboki Zumarragara



pasatzea erabaki zuten beraien borondatez, nahiz eta Urretxuko agintariak honen aurka egon. Erabaki hau, herritar guztien ahotan izan zen luzaroan, herritarrentzat lur galtze hutsa ez baitzen izan.

Gipuzkoako Foru Aldundian eta Madrilgo Kongresu eta Senatuan gai honi buruz eztabaidatu zen eta 1892. urtean erreginak erregearen ordezkari gisa, Madrilgo Gorteetan hartutako Zumarragaren aldeko erabakia jakinarazi zuen, bertako udaletxera bidalitako agiri baten bidez.

Trenbidea eraikitzearekin batera, Iparragirre hiribidetik, Sekundino Esnaola kalean zehar, Isabeleko zubiraino doan errepidea konpondu

zen. Ordurarte oinezkoen ibilbidea zena, merkantziak pasatu ahal izateko egokitu zen. Ordurarte merkantziek Eitzagatik barrena, Urretxuko aldapa igo eta Labeaga kalean zehar, Isabeleraino joaten zirenez, trenbidearekin batera egindako errepideak kalte ekonomikoa eragin zion Urretxuri.

Gatazka hauek alde batera utzita, trenbidea, tren zerbitzua eta geltokia Zumarragan kokatzeak bi herrien industralizazio mailarako, arlo ekonomikorako eta herrien populazioaren hazkuntzarako ezinbesteko garrantzia izan zuen. Herriko eta inguruko zenbait lantegitarako beharrezkoak diren lehengaien garraio biderik erabiliena izan baita urteetan zehar tren zerbitzua. Enpresetarako baliagarria izateaz gain, Urola eta Deba bailaretako biztanlegoarentzat beharrezkoa izan da eta egun, beste garraio mota batzuen erabilpena ugaritu bada ere, oraindik ere kanpotar franko inguratzen da Zumarragara. 1941. urtean, RENFE konpainiak eskuratu zuen Irun-Madrid ibilbideko tren zerbitzua.

KORTABERRIA

TABERNA

Pintxoak, Bokatak, Afariak

Kalebarren 26an gaude

ZUMARRAGA

Tfnoa: 72 04 67

Keros
enmarkatze
arte ederrak
dekorazioa
opariak

Labeaga, 35 Tfnoa: 71 41 60 20700 - URRETXU

MASTER - Hezkor

*Zumarragako elektrogailu
erakusketarik handiena!*

**Prezio eta modeloetan aukera
benetan aparta!**

Urdaneta Hiribidea, 5 © 72 41 31
20700 ZUMARRAGA

Argazki Estudioa

Argazki eta bideogintza

Ipeñarrieta, 20 © 72 23 19 URRETXU
Aizkorri, 1 © 73 06 84 LEGAZPI



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU

© 72 25 99

tzuri beltz

Egin ezazu zure erropa

3.500 pezeta hilabetean

Labeaga 35
URRETXU

Tfnoa: 72 44 64


Garizuma garaian bigiliarik egiten al duzu?



Juana Sobrino eta Josefa Alijas


Bai betidanik ezagutu dugu etxean bigilia egiteko ohitura eta guk ere horretan jarraitzen dugu.

Garizuma garaian ostiralero egiten dugu eta baita Aste Santuan egin beharreko egunetan ere.



Juan Antonio Ramos

Bai, gurean oraindik ere bigilia egiten da. Betidanik ezagutu dudana tradizioa da.



Miren Sasieta

Ez dut egiteko ohiturarik. Gure aitak esaten zuenez, ahotik jandakoak ez du kalterik egiten, ahotik irtendakoak egiten du kalte. Eta hau hala dela uste dut.



Yolanda Nogales

Ez, ez dut sekula egin. Gure etxean ez diogu bigiliari garrantzi gehiegirik ematen.



Mila Osinalde zuma-rragarrak bizitza osoa darama musika munduari loturik. Bere amak txan-txetan musikaren konpasa jarraituz jaio zela esaten omen zion. Sei urte zituela Don Juan Jose Belaustegi izan zuen bere lehen irakasle. Musikagile honengandik ahal zuen guztia ikasi ondoren, Garzia Piudo ahizpak irakasle zituela, Donostiako kontserbatoriora joan zen ikasketak amaitzera. Gainera, bere musika heziketa hobetzeko asmoarekin, hainbat ikasketa berezi burutu ditu; besteak beste, Paris eta Madrilen. Azken honetan gainera Carl Orffen metodoa ikasi zuen. Orotara, piano, organo eta solfeo goi ikasketak eginak ditu.

Musika irakasle bezala hogeita hamar urte baino gehiago daramatza. Hasiera batean bere etxean hasi zen partikularrak ematen. Batxilerrean, musika, derrigorezko ikasgaitzat jarri zenean, Urretxu eta Beasaingo institutoetatik deitu zioten bertan klaseak eman zitzaizkion. Garai hartan 1800 ikasle izatera heldu zen.

1981. urtean, Zumarragan, Musika Ikastetxe ofiziala sortzeko aukera egon zen. Bete beharreko baldintza bat ikastetxe munizipala izatearena zen. Milak, hau ikusirik, udaletxera jo zuen aukera honen berri emateko eta udalak baiezkota eman ondoren, Sekundino Esnaola Musika Ikastetxea sortu zen.

Etorkizuneko asmoen berri ematean oso itxaropentsu ageri da. Bere hiru ikasleek, Madrilen ospatuko den *Concurso Nacional de piano Infanta Cristina* parte hartuko dute. Italiara ere, organo ikasleekin joango da ikasketa berezi batera. Osasunez ondo dagoen bitartean ez omen du jubilatze asmorik, oso gustora baitago.

MILA OSINALDE

POLITENA
TABERNA

Kalebarren 20700 ZUMARRAGA

ELIZ - KALE

L AUTOESKOLA

Bidezar, 11
20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

A

Agortzane dekorazioa

LARBEAGA52-720494-URRETUXU

Beharrean dagoenaren zerbitzura dago Gurutze Gorria

Duela 20 urte, asteburuetan norberaren autoa anbulantzia gisa erabiltzen zuen bolondres talde batek, sortu zuen Urretxuko kamineroen etxean Gurutze Gorria. Azken urteotan, aurrerakada handia izan du elkarteak, egun Urola Garaiko Gurutze Gorria da eta 3 anbulantzia, ezinduekin lan egiteko egokitutako ibilgailu bat eta mendian, elurretan edota uholde egunetan beharrean daudenei laguntzeko beste ibilgailu bat ere badute. Beharrean dagoenaren zerbitzura lan egiteko prest dauden 50 bolondres inguruk, soldaduzka bertan egiten dutenek eta zenbait objektorek osatzen dute elkarteak.



Aparizio auzoko Gurutze Gorriko postua da herriarren artean ezagunena, baina bulego nagusiak, Labeaga kalean daude, bertan 7 bolondres biltzen dira eguneroko lana antolatu eta Gurutze Gorria osatzen duten hiru taldeen ekintzak koordinatzeko. Baina barne ekitaldiak antolatzeke leku faltan izaten direnez, duela bi urte Madayan, beste lokal bat erosteko erabakia hartu zuen zuzendaritzak. Lokal hau ordaindu ahal izatea eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mankomunitateak erdibana ordaindu duten ezinduentzako ibilgailu egokitua izan dira ardura-dunen ustez, lortutako bi gauza garrantzitsuenak.

Hiru talde daude elkartean

3 taldek osatzen dute elkarte hau, gizarte taldeak, gazte taldeak eta ekintza eta zerbitzu taldeak hain zuzen ere.

Gizarte taldeak batez ere hirugarren adineko jendeari zuzenduriko ekintzak antolatzen ditu. Legazpi,

Urretxu eta Zumarragako 18 aitona-amona Legazpi eta Urretxuko Eguneke egoitzara eramatea, urte hasieran, 1000 jubilatu inguru biltzen den bazkaria antolatzea edota geriatrikoko lagunak egun pasa eramatea talde honen ardura da. Urtean bitan gainera, hiru herrietako 800 bizilagunen artean elikagaiak banatzen dituzte. Aipagarria da aldi berean, bakarrik bizi diren aitona-amonei eskaintzen dien *teleasistentzia* izeneko zerbitzua. Ezbeharren bat gertatu orduko, Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzea ahalbideratzen duen zerbitzua da eta laguntza eskatu duenaren larrialdia konpondu bitartean, Gurutze Gorriko kideen laguntza izaten da.

Gazte taldea 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek osatzen dute. Larunbata arratsaldetan 75 lagun biltzen dira Gurutze Gorrian, eskulanak eta irteerak egin, jolastu edota lehenengo laguntzetako ikastaroak jasotzeko. Urtean bitan, berriz, herriko haur guztiei zuzendutako bi festa antolatzeke ohitura dute.

Baina dudarik gabe, haurrentzat

atseginena otsailean eta ekainean, inguruko aterpetxeren batean pasatzen duten asteburua da. Duela hilabete hain zuzen ere, 69 gaztetxok 6 begiralerekin batera asteburu zoragarria pasatu zuten Orion. Gaztetxoenen ardurapean dago kanpaina desberdinak bultzatzea, botoizko pilen bilketa edota Cubatarrei eskainitako laguntza esate baterako.

Urteko 365 egunetan zerbitzu zabala eskaintzen diote beharrean dagoenari

Ekintza eta zerbitzu taldea Aparizioako postuaz arduratzen da. Hauen egin beharra gaixoak eta zaurituak ospitalera eramatea da. Postuan, bolondresak, soldaduzkan egiten dihardutenak edota objektoreak 6 lagunek taldeetan aritzen dira goiz, arratsalde eta gaueko txandetan. Urteko 365 egunetan 24 orduko zerbitzua eskaintzen dute. Iaz, 856 irteera egin zituzten. 68 aldiriz eskaini zuten zerbitzua Zumarragan, 50 Urretxun eta 22 Legazpin.



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23




O'NEILL-ASTORE-LIBERTO-H.W.-LIBERO

Udaberriko eta udako modarik onena

20700 Urretxu

Nekolalde, 3
Tlfnoa: 72 56 89



**PLAZAOLA
ITURGINTZA**

JACINTO PLAZAOLA/MIKORIA

Bidezan, 5
20700 ZUMARRAGA

© 72 13 70



Beste leku batzuetan ur horniketa ziurtatzeko trasbaseak egiten badituzte, Zumarragako udalak sistema berritzailea jarri du martxan. Poltsa termikoetan elurra sartu, eta nonbaiten fresko fresko gorde, eta udan, ur eskasia dagoenean, erabili. Ikusten dugunez, gero eta erabaki ekologikogoak hartzen dira!

NONDIK DATOR!

AMENABAR

Abizenaren bigarren osagaiak "Pardo" esanahi du. Nabar osagaiak hala ere, *nabaria*, *nabarmena* ere adieraz dezake. Lehenengo osagaiaren erroa nondik datorren ez da ezagutzen. Amenabarren kasuan, *ametz* eta *nabar* izan daitezke abizenaren bi osagaiak.

Arnabar, Zuaznabar, Harnabar, Nabarkorena... osagai bereko abizen batzuk dira.

Zinpekoen Epaimahaia

Espainiar konstituzioak ezarritakoaren aginduetara, 1995eko maiatzaren 22an zinpekoen Epaimahaiaren Lege Organikoa promulgatu zen.

Erakunde honen oinarrietan bi printzipio nagusi daude: Alde batetik, Konstituzioaren arabera Justiziak herrian duela iturburua eta bestetik, Estatu demokratiko batean hiritarrek arazo publikoetan esku hartu behar dutela.



Goiatz Aizpuru Lizarralde
Zuzenbidean lizentziatua

Printzipio hauen egokitasuna zalantzan jarri gabe erakunde honek arazo batzuk aurkezten dituela baieztatuko nuke. Agian, beste neurri batzuen aukeraketak aztertu beharrekoak lirateke, esate baterako hiritarren Justizi administrazioan parte-hartzea, berauek aukeraturiko epaileen bidez bideratzea.

Ez dugu ahaztu behar gure sistema juridikoak ez duela Anglosajoiarekin zerikusirik. Hemen justiziaren betebeharra, kodifikaturik dagoen zuzenbidearen kasuz kasuko interpretazio eta aplikaziora mugatzen da.


Lege berri honek Zinpeko Epaimahaiari pertsona bat errudun den edo ez den erabakitzea eta delituan izan duen partaidetza zehaztea eskatzen dio. Honek, arauetan ezarritako irizpide batzuk ulertu eta kontutan hartzea behartzen du. Zuzenbidean tekniko direnei hainbeste lan eman eta ematen dien eginkizun hau epaileak ordu batzuetan emandako argibide batzuekin soilik, egoki betetzeko gai izango al gara hiritarrok? Gainera, legegileak hiritarren gaitasuna hain garbi bazuen, zergaitik mugatu du Zinpekoen Epaimahaiaren eskuduntza, delitu penal gutxi batzuetara bakarrik?

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



"JIU-JITSU"-A, GURE ARTEAN EZEZAGUNA DEN KIROLA

Jiu-Jitsua gehiengoarentzat ezezaguna den arren, badira zenbait jarraitzaile gure herrian. Hauetako bat Jesus Junkera zumarragar gaztea dugu. Berarengana jo genuen kirol honen inguruko xehetasunak zuei adierazteko asmotan



Hasteko, zertan datza Jiu-Jitsua?

Gutxigorabehera, Judo, Karate eta Aikiro arte martzialen nahasketa da. Jiu-Jitsua konpetizio bat da eta jendeak uste duenaren aurka min hartzea zaila da baina honetarako ondo erortzen jakitea ezinbestekoa da. Erori aurretik, eskuaz Tatamia (Jiu-Jitsua praktikatzan den zoru berezia) jo behar da, honela eskuan hartutako mina baino ez dugu izango.

Zein prestaketa egiten duzue?

Egunero praktikatzan dut kirol hau, oso garrantzitsua baita jarraikortasuna. Denetik egiten dugu, hasiera batean beroketa, ondoren "giltzak" praktikatzan ditugu, gero kolpeak ekiditen ikasten dugu eta azkenik defentsa lantzen dugu.


Noiz eta nola hasi zinen kirol honetan?

20 urte inguru nituenean hasi nintzen, baina lehenagotik beste arte batzuk ere praktikatu izan ditut asko

erakartzen

bainau mundu honek. Esatebaterako Jiu-Jitsua ezagutzera kartel bat irakurri ondoren animatu nintzen. Jiu-Jitsua denetarik duen kirola da, halere, ez da sekula erabat ezagutzen, etengabe ikasten diharduzu.

Zer suposatzen du zuretzat kirol honek?



Dudarik gabe ziurtasuna. Nire ustez, defentsarako tresna da eta ez urkoa erasotzeko edota jendaurrean indarra erakusteko. Bakoitzak bere buruarengan ziurtasuna izatea oinarritzkoa da. Bestalde, emakume guztiak gonbidatuko nituzke Jiu-Jitsu ikastera, ez soilik defenditzen jakiteko, baita kirola ezagutzeko ere.

**Jiu-Jitsu kiroleko
Euskadiko txapelduna
eta Estatuko
hirugarrena da**

Bukatzeke, esan berri dudan bezala, jendea Jiu-Jitsua praktitzera animatuko nuke, nire ustez kirol honen ezagupena oso interesgarria izan baita.



ARTVRO


Markoketa lanak eta Arte
Ederretako tresnak

Ipeñarrieta, 4 © 72 14 20 URRETXU

Herri Aldizkaria
Otamotz

Iragarkiren bat sartu
nahi izanez gero deitu
72 57 75 telefono
zenbakira

ZAPATAK



Otik 40 zenbakiraino

Eliz Kale, 7 © 72 54 39 20700 ZUMARRAGA

LEHIAKETAK

Urretxu eta Zumarragako udalek antolatutako zenbait lehiaketa. Izena emateko epea **irailaren 13an** amaitzen da.

- .-Bertso-Paper lehiaketa
- .-Narratiba lehiaketa
- .-Poesia lehiaketa
- .-Komiki lehiaketa
- .-Argazki lehiaketa
- .-Pintura lehiaketa

ZORIONAK



Maier Zalduari:
Apirilean sartzeraz goaz
oporraldia gainean
zortzi urte beteko dituzu
hilaren lehenengoan
bagendun gogo ta ilusia
etxekoek zoriontean
mila musu ta zorionak
ongi pasa jolasean
Aita-Ama-Jokin



Gema Lasa, hilaren
11n lasai lasai ospatu
ezazu zure urtebetetze
eguna. Zintzo Mintzoko
lagunen partetik
Zorionak eta urte
askotarako!



Andoni Biainek,
apirilaren 13an
urteak beteko ditu.
Zorionak gazte!!
Jarraitu dezazula
urteak betetzen eta
futbolean jokatzeko
Urolan jende berria
behar baitugu.



Leturiondo alde
horretan etxekoe-
kin, ondo pasa
ezazula **Sabin.**
Musu handi bat
zure lehengusu eta
osaba - izeben par-
tetik. Zorionak!



Antxiñe, eguraldi
ona, udaberria eta
garai aparta zuen
txabolan afaria
egiteko. Urtebe-
tetzea aitzaki ea
egiterik dugun.
Zorionak!



Jone Aldalur,
apirilaren 3an 24
urte beteko ditu-
zu. Zer uste zenuen
ahazturik geundela
ala? Zorionik be-
roenak koadrila-
koen partetik.

HAURRENTZAKO ZINEA

Igandeetan arratsaldeko 16:30etatik aurrera, **Zintzo-Mintzok** antolatutako haurrentzako filmeak izango dira ikusgai Pagoeta antzokian. Sarrera 100 pezeta.

Apirilak 21: Lau izugarriak.
Espazioko jokoak

Apirilak 28: *Periko eta Benjamin*
untxien ipuina

IKASTAROAK

Oihal gaineko pintura ikastaroa
antolatu du **Mairi** emakume
elkarteak apirilaren 11, 15, 18 eta
22rako. Arratsaldeko 3:30etatik
5etara bitartean izango da. Izen
ematea Kultur Etxean egin daiteke,
bazkideek 1.000 pezeta eta
gainontzekoek 1.500 ordaindu
beharko dute, materiala ez dago
matrikularen prezioan sartuta.

HITZALDAK

Apirilerako euskal literaturari buruzko hiru hitzaldi antolatu ditu **Hits & Fits** taldeak. Tere Irastortza, apirilaren 12an, Jose Antonio Vitoria, apirilaren 19an, eta Felipe Juaristi, apirilaren 26an, izango dira hizlariak.

ERAKUSKETA

Apirilaren 19tik 28ra bitartean:
Urretxuko udalak duen pintura patri-
monioa ikusgai izango da Aldaketa
erakusgelan.

IRRINTZI

Apirilak 27: Irrintzi dantza taldeak
dantza ikuskizuna eskainiko du
Zumarragako Beloki pilotalekuan,
gaueko 10:30etan. Herriko txistu-
lariak, trikitrilariak, gaiteroak,
soinujoleak, txalapartariak, bertso-
lariak eta txiskolariak arituko dira.

